

iruner

195. zenbakia. 2011ko ekaina



TAOko langileen greba: kaltetuak eta onuradunak



Behobiak
ohorezko
erregional
mailan jokatu
du estrainekoz

Bodypaintinga: Virginia Barreto Argazkia: Manu Barreiro



Sanmartzialak
2011



Sanmartzialak, lehenengo ilaratik

Jarrai itzazu sanmartzialak Gipuzkoa
Telebista Txingudiren bidez.

- Entseguak
- Kantinekin solasaldiak
- Jaiak
- San Pedro eguneko armen ikuskatzea
- San Martzial eguna





Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxa: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

4.- *Lapikoan*

- Kantinera izan nahi? Bai!
- Danbor-arrada hobetu nahian.
- TAOko langileen greba.

14.- *Kirolak.*

- Behobia futbol taldea, gorantz.

15.- *Alarde Tradizionaleko kantinerak.*

19- *Bi hitzetan:* Berri laburrak.

22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa*

- Emozio positiboak azalaraztea .

24.- *Eleak iruten.* .

25.- *Lerroz lerro.* Fermin Erbiti:

Hiru koaderno txiki

26.- *Kultur Agenda:* Jaietako programa

28.- *Alarde Publikoko kantinerak*

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxa: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta
Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza

“Bandako kantinera

Alarde tradizionalako Bandako kantineraren hautaketaren lekuko izan zen Irunero, baita ondorengo jakinarazpen hunkigarriarena ere. Hona hemen bertatik bertara bitakoaren kontakizuna.

Ama Miraritakoaren kapera mukuru beteta. Arratseko 10ak. 2011ko Alarde Tradizionalako Bandako kantinera hautatzeko bozketa hastear da. Horma batean, lau hautagaien argazki bana, dagokion izenez eta zenbaki batez identifikaturik.

Idazkariak eskubidea duten musikariak banan-banan deitzen ditu bozkatzera. “Neska bat aurkezteko orduan ez dago baldintzarik, baina urte osoan zehar Bandan jotzen dugunok -ez soilik San Martzial egunean- nahiago izaten dugu Bandako kide den neska bat edo gutako norbaitek aurkeztutakoa aukeratzeari. Hori gauza logikoa da”, azaldu digu kide batek Kaperako atearen beste aldean, taldetxo bat zain, tartean, Bandako musikari diren neska gazteak.

Isiltasuna nagusi orain. “Badugu kantinera: Rocío Sanchez”. Emaitzak sekulako



Rocio Sanchez, Bandako musikariak entzuten.

izan nahi duzu? Bai!"

poza eragin du dagoeneko elizan dauden gaztetxoen artean. "Bai! Bandan jotzen duen laguna dugu!" Batzordeko kideak autoetan sartzen dira ziztu bizian kantineraren etxerantz abiatzeko, berri ona ematera.

Belaskoenean: baina non dago kantineraren etxea?

Kantinerak Belaskoeneko Gabarrari plazatxoan bizi da. GPSrik ezean, oraindik kalean dagoen bizilagunen bati galdetu beharra dago. Gizon batek taldetxoari norabidea markatu dio, baina... "Ez, hortik ez! Hortik Goardia Zibilaren koartela besterik ez dago!", oihu egin du bizilagunak. Taxi-gidari bati ere galdetzen diote nondik jo behar den. Behin atarian, lau solairu oinez igotzea besterik ez da geratzen. Txirrinaren hotsean gurasoak azaltzen dira atera, eta, haien atzetik, Rocío. Iñaki Gurrutxagaren txanda da orduan, protokoloak ezarritakori jarraiki: "Bandako aurtengo kantinera izan nahi duzu?" Badirudi Rociori baietz erantzuteko artean zituen indarrak ahitu egin



Rocío Bandako lagunekin.



Bandako musikariak kantineraren etxeko atarian.

zaizkiola.

Emozioaren zurrunbiloa

Handik aurrerako gertaerak zurrunbilo baten antzera

igaro ziren. Kantinera, emozioari ezin eutsi, lagunak eta bizilagunak besarkatzen, haien zorionak eskertuz.

Rociok, malkoak xukatuz, oraindik ezin duela sinetsi, oraindik zangoak dar-dar batean dituela... "Ez du egun osoan ezer jan", esan zuen ahizpak. "Ni bera baino urdu-riago nago!". Gauaren isiltasuna San Martzialgo himnoak hautsi zuen, kantineraren etxe parean. Rocio arrapalan eskaileretatik behera bere lagun musikariak jotzen ari ziren martxaren erritmorra salto egitera, lore sorta bat beso artean zuela.

Jakin-minak bizilagunak leihoetara aterarazi zituen, eta baten bat kalera ere, txabusin eta zapatiletan. *Gora, kantine-ra!* ozen entzun zen, han goian, nonbait.

Ospatzera

Musikaz lagunduta, lagunez inguratuta, biribilketan, Rocio Belaskoeneko elizako lokalera abiatu zen, gaurdiko luntxari hasiera emateko. Gurasoak irribarrez etenik gabe, loteria tokatu balitzaie baino alaiago. Alabak bizitzan behin baino biziko ez zuen gauza bat zela



Bandako batzordeko kideak kantinerarekin.

zioen aitak, harro.

Diego mutil-laguna bertan zen, bat-batean osatutako banda txikian tronboia jotzen eta unearen ederraz gozaten. Bozketaren emaitza entzutean bozkarioak gainezka egin ziola, aurtengo sanmartzialak bizitza guztian gogoan izango zituela.

Banda txikiak martxak aletzen jarraitu zuen, Diana hunkigarritik hasita, Rocio munduko gizakirik zoriontsuena eginez. Sanmartzialetako makinaren

motorra jira-biraka hasia zen. Gau hartan bertan ekin zioten bandako arduradunek logistikaren inguruko erabakiak hartzeari. Hara lehena: kantine-nera Urdanibia plazatik urrun bizi denez, ez zitzaizkiola etxeraino bila joango. Nork bere eginkizun zehatza beteta gauzatuko da, aurtien ere, beti berdina eta beti ezberdina den Alardea, eta Rociok bertan ohorezko lekua izango du.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMTSETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,....

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen karri-
ka)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA
(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEko AUZO
ELKARTEA (Luis de Urantz,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKARTEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).

Taxuzko danbor-arrada, helburu



Maiatzaren hasieratik, ostiralero, Dunboa eskolako jolastokian txilibituek eta danbor-arradek San Martzial eguneko aireak zabaltzen dituzte. Bertan egiten den tailerrera biltzen dira Alarde publikoan desfilatzeko musika-tresna jotzen ikasi edo hobetu nahi dutenak.

Taldeak behin eta berriro jotzen ditu hiru doinuak: Arrankada, San Martzial himnoa eta Elizarako igoera. Alarderako ongi trebatuak egoteko astean behin elkarrekin jarduten dute, eskarmentu handiagoa dutenek hasiberriei ikasten lagunduz.

Adin guztietako musikariak daude, 13 urteko mutiko bat ere bai, oraindik parte hartzerik ez duen arren etorkizuneko bandaren batean taxuz jo nahi lukeelako.

“Aurten jende berri gehiago dugu, Lapitzeko konpainia osatu delako”, azaldu digu antolaketa lanetan dabilen Patxi Perezek. “Bada instrumentuz aldatu nahi duenik ere”.

Erredoblea

Erredoblea bandako musika-tresnen artean zailena da menperatzen, batez ere esku-muturra ederki kontrolatzea eskaten duelako, emaitza zurrumurru bikaina izan dadin. Horregatik, tailerrera batik bat danbor-joleak joaten dira. Zenbaitentzat trebaketa lana ez da maiatzean hasten: lehenbizikoz jo nahi dutenek otsailetik aurrera ohol gainean ikasteko aukera izan ohi dute, “azalera gogorrean arituz gero, errezagoa gertatzen baita emaitza onak lortzea erredoblean”, argitu digu Danborradan joaten den emakume batek. “Nire ilusioa Alardea egitea zen, horrexek

“Alardea egitea esperientzia zoragarria izan zen”

bultzatu ninduen ikastera”.

Esperientzia polita

Anak erredobleari gogoz ekiten dio. Bidasoa konpainiarekin joan zen iaz eta aurten hobeki jo nahi du. “Bai, urte osoan jo ez dudalako etorri naiz”. “Esperientzia zoragarria izan zen. Pena ematen dit

lehenago ateratzea erabaki ez izanak!”. Aurten senarrarekin eta bi seme-alabekin desfilatuko du.

Saioak aurrera egiten du. Arrankada da guztien artean martxarik zailena, adituenean ustez, erredoble gehien daukana delako.

Urtetan danbor-jole lana egin dutenek hasiberriei makilekin taxuzko mugimenduak egiteko jarraibideak ematen dizkiete. Julian Alarde piloak egin duen horietako bat da, eta menperatzen duela gehitxo esatea iruditzen bazaio ere, laguntzera etorritakoetako bat da. “Tailerrean parte hartzen dudana lehenengo aldia da. Alaba laguntzera etorri naiz”. Ekainaren 30ean biek markatuko dute erritmoa.



Txilibitu eta danbor tailerrean parte hartu zuten lagun batzuk.

TAOko langileen grebak urte amaiera arte iraun dezake

Apirilaren 1az geroztik Irunen ez da ordaindu behar TAO (Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua) guneetan aparkatzearen truke. Orduetik zerbitzuaren kontzesioduna den Eyssa enpresako 15 langile greban daude, lan-hitzarmen bat lortzeko. Beste 13k lanean dihardute. Egoera honek batzuei mesede egin die; beste batzuei, kalte.



Egoera honek luzerako jo dezakeela -urte bukaera arte ere- iragarri du enpresa-batzordean gehiengoa duen ELA sindikatuak. Arazoaren muina soldatan datza. “Irungo langile hauek 1.000 euro kobratzen dute hilabetero. Errenteria, Tolosa edo Zarauzkoek, berriz, non zerbitzua beste enpresa batzuek kudeatzen duten, soldatak %30 handiagoak dira”, azaldu du Xabier Perez Irungo ELAko ordezkariak.

Eremu propioko lan-hitzarmen bat sinatu aldeira, sindikatuak PRECO edo bitartekaritza sistema proposatu du; “baina enpresak ez du negoziatu nahi”. Irungo Udalak -kontzesioa egin duen erakundeak- negoziazioa ireki dadila eskatu zuen mozio batean; alabaina, ez du eraginik izan orain arte. Xabier Perezen esaneko, “gu prest gaude epealdi luzeko hitzarmena sinatzeko, eta gure

eskakizunetan ere malguak gara; alegia, ez dugu % 30 gehiago exijituko. Enpresa eseriko balitz, greba bertan behera ere utziko genuke”.

Kalteak eta mesedeak

Langileek TAO eremuetan ordaindu gabe aparkatzeagatik salaketarik ez egiteak ondorioak ekarri ditu, onak batzuentzat, txarrak besteentzat. Lehenik eta behin, gatazkak Irungo aparkamenduaren “mapa” aldatu du: TAOrik ez duten auzo eta eremuetan aparkatzea errazagoa da orain; zentroan, ordea, korapilatsuagoa. Bigarren ondorio argia da egoiliar-txartela dutenei zailago gertatzen zaiela tokia topatzea.

Zentroko merkatari eta bizilagunei galdegin diegu, grebak herrestan ekarri dizkietenen berri izateko. San Juan aldeko fruta-denda handian bezeroek aparkalekua aurkitzeko zailtasun handiagoak dituztela nabari dute. “Baina, oztopoak gorabehera, bezeroek etortzen jarraitzen dute; alegia, arazoak ez duela salmentetan eraginik izan orain arte”. Handik hurbil, inguruetako bizilagun bat kexu da bere alabari aparkamendua mugatua ez egoteak ekarri dizkion buruhausteengatik. “Buelta asko eman behar du leku bila. Ematen ez zaigun zerbitzu bat ordaintzen ari gara. Azkenean Udala salatu beharko dugu”.

Beste muturreko iritzikoa da Kolon ibilbideko dendari bat, egoera berriarekin “oso kontent” dagoena. “Belaskoenean bizi naiz eta han orain ez dut arazorik. Egia da jendeari zentroa kotxez erostetak egitera etortzea pixka bat konplikatu zaiola, baina eskuarki bezeroak pozik daude ordaindu behar ez dutelako”. Denda honetako merkatariak ere ez duela diru sarreretan murrizketarik jasan adierazi du.

Merkairun azokan, ordea, grebaz iritzi ezberdinak entzuten dira. “Niregatik hobe lehenbailehen bukatzen bada”, dio saltzaile batek. “Salmentetan ez dugu aldaketarik nabaritu, zailtasunak gorabehera, inork ez baitu beste saltoki batera erostera joatea erabaki; baina jendea kexu da. Kontuan hartu behar da beze-



ro guztiek ez dutela lurrazpiko aparkalekua erabiltzen”. Merkatari askorentzat bezala, honentzat ere mugarik gabe autoa geratzeko aukerak abantailak ditu. “Egia esan, errazagoa dugu zentroan autoa uztea, eta egun guztian zehar ez dugu mugitu beharrik. Gainera, Dunboa eta halako auzoetan bizi garenok etxeratzen garenean lehen baino aiseago aparkatzen dugu”.

Beste muturreko erantzuna eman digu azokako harakin batek, TAO ezak negozioak eta bezeroak nola eta noraino ikutzen dituen galderaren inguruan: “Nik entzuten ditudan komentario guztiak onak dira, alegia, jendeari mesede egin diola grebak”.

Lanean ari direnek grebalarien presioak salatu dituzte

Lanean jarraitzen dutenek grebalarien jokabidea epaitegian salatu dute. “Jazarpenak, irainak eta presioak pairatzen ditugu, baita gure senideek ere”, dio langile batek.

Langile hauek enpresak sinatutako Gipuzkoako hitzarmena onartu dute (2011an %3,5eko soldata handitzea jasotzen duena) eta ELAren aldetik informazio falta salatzen dute.

Behobia ohorezko erregional mailara igo da



1975. urtean CD Behobia sortu zenetik, klubak ez du inoiz halako lorpenik erdietsi: heldu den sasoiari ohorezko erregional mailan jokatuko du senior taldeak.

Afizionatuak dira denak. Baloiak gatibatuta dituen futbolzale kartsuak. Carmelo Perez entrenatzaileak sinestarazi zien egina- rez eginez igotzea ez zela ezinezko kontua. Eta zerua haztatu dute. Jarraian, gidariaren mintzoa.



Ezkerrean, igoera ospatzen Irunen barrera. Eskubian, Josu Boned.

- Nola bizi izan duzue igoera?

Igoerak ikaragarritzko poza eragin digu. Ez dugu sekula ahaztuko. Ospatzeko, Irunen barrera osteratxoia egin genuen, propio apaindutako kamioi batean.

Lorpenak zeharo gogobete nau. Kontuan hartu oso argi neukala nire helburu pertsonala: oheretako erregional mailara lehenengoz igotzea. Behobia gutxi gorabehera urtero zazpigarren sailkatzen zen; aurten lortu behar genuen.

- Zer falta zen, bada?

Jokalariek sinistu behar zuten igotzea posible zela. Nire egitekoa lan eginez lor zitekeela sinestaraztea izan da, hain zuzen.

- Jarraituko duzu entrenatzaile lanetan?

Gustura jarraituko nuke, baina ez dago erabakita. CD Behobiaren zuzendaritza batzordearekin akordio ekonomikoa eta kirol alorrekoa lortzearen baitan dago.

- Nola joan da denboraldia?

Aurrendenboraldian taldea oso ongi entrenatzen hasi zen. Lehen itzuliaren amaieran, ordea, betiko postuetan geunden, zazpigarren, gutxi gora behera. Bigarren itzuliko lehenengo partidua -etxean jokatu genuena- galdu genuen. Orduan, egoerari buelta eman aldera, denbora gehiegi entrenatzea proposatu nien jokalariei. Prest egon arren, kontua zen Galeko zelaia ordubete baino ezin dugula erabili. Hortaz, bidegorrian ekin genion lanari. Handik aurrera,



Carmelo Perez entrenatzailea.

11 norgehiagoka irabazi genituen jarraian.

- Afizionatuen mailetan motibazioak garrantzi handia dauka. Zein da zure estiloa?

Maila hauetan jokalariek gozatzeko aritzen dira futboleant. Nik goxo jokatzen dut mutilekin, haien sormena martxan jartzen uzten diet,

ekarpenak egiten, ez diet taktika dela eta eta ez dela matraka ematen... Jokalariekin harreman ona izanda lorpen handiak erdiets daitezkeela erakutsi nahi nuen, hurbileko estilo honek balio ez duelako ustea oso zabaldua baitago. Ni balekoa delakoan nago. Athletic-en jubeniletan jokatzen nuen, Iñaki Saez entrenatzaile izan nuen. Ez gintuen presionatzen. Horixe niretzat erreferente eta jarraibide. Hain goratua izan den Vicente del Bosquek ere ildo hori jorratu du.

-Zer aldaketa dakar ohorezko erregional mailak?

Bada, taldearen gastuak askoz ere handiagoak izango dira, urrutiago joan beharko dugulako jokatzerara.

Jokalariak ilusioz gainezka daude. Gehienek ez dute kategoria horretan sekula jardun. Entrenatzailearen zeregina funtsezkoa izango da.

- Maila berrian zer aukera du taldeak?

Datorren denboraldian taldeak sailkapenaren erdi parean buka dezake. Berebiziko garrantzia du lehenbailehen mailari erritmoa egokitzeak: gure jokalariek ez dira besteak baino txarragoak, egokitu beharra dago, besterik ez. Hurrengo saltoa hirugarren maila litzateke: hori bai saltoa!



Jokalariak 2010/2011

Jon Alzuri	Ibai Iturria
Josu Boned	Meltxor Iza
Mikel Chamorro	David Jimenez
Iker Dominguez	Borja Jimenez,
Egoitz Etxabe	Jakoba Lopez
Roberto Fernandez	Jose L. Martin
Ivan Fernandez	Oscar Modenes
Javier Garcia	David Ortega
Jose A. Gomez	Iker Perejon
Mikel Gurrutxaga	Oscar Riveras
Jon Gurrutxaga	Iñaki Zabaleta



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.



Iciar Zaragueta Ollo
Danborrada

Alarde Tradizionaleko kantinerak 2011



Rocío Sanchez
García
Banda



Naikari
Fernandez Erro
Zaldieria



 **mobiko**
areal ingeltanera

Sukaldeko altzarien diseinua
eta fabrikazioa

Letxunborro hiribidea, 55. Anaka. IRUN

Tel: 943 614971 Faxa: 943 660086

info@mobiko.es



Aitziber Aranburu Vegas
Behobia



Giovana Serna Higuera
Bentak



Tania Notario Diez
Meaka



Begoña Arruabarrena Biurrarena
Bidasoa



Maitane Estebanez Cuadrado
San Migel



Alexandra Sanchez Martinez
Olaberria

Masajea • Akupuntura • Photonterapia

Ongi sentitzeko espazioa

Espacio bienestar



SERGIO MADEJÓN

Masajea Akupuntura

Eihera plaza, 4 behe ezkerria
Urdanibia Berri IRUN
Tel: 943 57 72 78
sergiomadejon@hotmail.com



Amaia Genua Peña
Ama Shantalen



Miren Ercibengoa Ochoa
Anaka



Amaia Illera Aramburu
Buenos Amigos



Ane Estomba Cabezon
Uranzu



Juncal Arzak Arabolaza
Santiago



Jael Alvarez Corredera
Lapitze

gesAR
gestoria ARANA
correduría de seguros

asesoria aholkularitza
integrala integrala
ingeniería injenieritza
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.
IRUN

Tel: 943 666 050

Fax: 943 618 075

gestoria.arana@garana.com



Estibaliz Prieto
de la Fuente
Real Union



Maialen Garcia
Arruabarrena
Azken Portu



Nagore Torres
Fernandez
Belasko Enea



Cristina Bereciartua
Retuerto
Artileria



higer bidea, 6-
20280
hondarribia.
gipuzkoa
t(34) 943 64 27 12

arrokaberri@arrokaberri.com
www.arrokaberri.com



Txingudi TBn, sanmartzialetako programazio zabala



Urtero legez, 2011n ere Gipuzkoa TB Txingudik ahalegin berezia egingo du ikus-entzuleei sanmartzialen emozioa etxeko pantailaren bidez helarazteko.

Programazio berezia ekainaren 13tik 30era arte zabalduko da, arratseko 9:30ean hasita.

Aurtengo berrikuntzarik nabarmenena Alarde Tradizionaleko kantineri egingo zaizkien elkarrizketetan datza. Zabaltza plazan grabatutakoak izango dira, jendaurrean, Txingudi TBk antolatu duen jai baten barne eta ardatz. Elkarrizketak hilaren 13tik 27ra hedatuko dira, gauero bi kantinera.

Gainera, sanmartzialak hurbildu ahala, programazioak beste hainbat ekitaldi jasoko ditu; hala nola, konpainien entseguak, ekainaren 28ko kantineren aurkezpena, San Pedro eguneko armen ikuskatzea...

San Martzial egunean Txingudi TBko kamerak eta mikrofonoak kalean ibiliko dira goizeko Alboradatik Alardea amaitu arte. Iaz lehenbizikoz egin zen estaldura mota arrakastatsua aurtengo ere burutuko da. Alardea zuzenean eman beharrean, grabatu egingo da. Kamerak hainbat gunetan kokatuz, Alarde osoa hainbat ikuspuntutatik jasotzea ahalbidetuko du eta, ondorioz, emanaldia askoz aberatsagoa izango da. Sistema honi esker, ikus-entzuleak Alardeaz gozatzea izango du, kalean lehenengo ilaran egongo ba litz bezalaxe. Hortaz, Telebistak primerako eserlekua eskaintzen du bertatik bertara ikustea korapilatsu gertatzen diren emozioz beteriko uneak gozatzeko. Hala, Arrankada, Junkal plazatxoko ekintzak Karrika Nagusiko arratsaldeko jaitsiera eta beste emango dira.

Osinbirilgo espazio berdea udazkenerako prest egongo da

Osinbiribileko eremua espazio berde publiko izatetik gero eta hurbilago dago. Parkearen proiektu handia etorkizunerako utzita, Irungo Udalak esleitu ditu eremuan parke apala moldatzeko obren bigarren fasea. Ez da jada baratza zein txabolaren aztarnik geratzen eta udazkenerako burututa izango da. Gaingiroki azalduta, honako esku-hartze hauek gauzatuko dituzte: sasitza kendu, iparraldea eta hegoaldea lotuko dituen bidea eraiki eta dagoena berreskuratu, eta hiru aintzira txiki sortu.



Serapio Mugica ikerkuntzarako beka emateko deialdia, zabalik

Irungo Udalak Irungo Historiari buruzko XII. Serapio Mugica Ikerketa Bekaren deialdia egin du. Bekaren helburua Irungo historiaren azterketa bultzatzea eta azterlan horiek hiritarren artean hedatzea da, baita ikerketarako ohitura sustatzea eta Udal Artxiboaren dokumentu-fondoak ezagutaraztea ere. Bekaren irabazleak 9.000 euroko diru-laguntza jasoko du. Laguntza honetarako ikerketa beka original eta argitaratu gabe guztiek dute aukera, baldin eta Irungo historiaren alderdiren bat lantzen badute. Gaia eta une historikoa libreak dira, eta euskaraz zein gaztelaniaz idatz daiteke. Eskerak Udal Artxiboan aurkez daitezke irailaren 13ra arte. Ikerketa lanak 2012ko abenduaren 30erako bukatuta behar du.



Serapio Mugica historialaria eta artxibozaina izan zen.

Irungo 280 ikaslek bertso saioa eskaini zuten Amaia KZn

Maiatzaren 17an eta 24an ospatu ziren Irungo Amaia KZan 2011ko Bertso Jaialdiak. IV. edizio hartara Irungo 280 ikas-bertsolari eta 550 entzule bildu ziren. Lehenengo saioan Dunboa eta Elatzeta eskoletako 5. mailakoek eta El Pilar eskolako 6. mailakoek urtean zehar egindako lana erakutsi zuten. Bigarren saioan El Pilarreko 5. mailakoek, Dunboako 4. mailakoek eta Belaskoenekoen txanda izan zen.

Ikasle horiek 2010-2011n zehar Gipuzkoako Bertsozale elkarteko Ander Lizarralde eta Alaia Martinen gidaritzapean aritu dira, ikastetxe bakoitzeko irakasleen laguntzarekin. Fernando San Martin Kultura ordezkaria ere agertokira igo zen, bertsoak kantatzera.



Lehen Hezkuntzako haur talde bat, bertsoan.

Lakaxita gaztetxeak Bidasoa Attak! musika jaialdia antolatu du

Ekainaren 25ean, 17:00etatik aurrera, Irungo Lakaxita gaztetxean Bidasoa Attak! musika jaialdia ospatuko da.

Parte-hartzaileak:

-DIK-PERRO CALIENTE-
-ARMATIROPUNK-ZANPATU-
-APURTU-EX-PAÑOLAK-
-KAIL (ex-Apostasia)-KAKA
-ZAHARRA TA BI PUZKER-
-NORTASUN GALDUAK-BIG
-BROWN BEAVERS-KAOS
-KOOPERATIV-LADY KOTXI-
-NAS-ARMY ET LES CHA-
-CHIZ



Jaialdiaren kartela

Langabezia Irunen %2,5 murriztu da maiatzean

LANGABEZIA	11ko martxoa		11ko apirila		11ko maiatza		11-abi. / 11-mai.	
	Guztira	*Tasa	Guztira	*Tasa	Guztira	*Tasa	Ald. absol.	Ald. erlat.
Irun	5.069	% 16,2	5.130	% 16,4	5.001	% 16	-129	% -2,5
Gipuzkoa	43.159	%12,1	43.829	% 12,3	42.837	% 12	-992	% -2,3
EAE	151.551	% 14,1	153.155	% 14,2	148.347	%13,8	-4.808	% -3,1

*Egailan Laneko Merkatuaren Behatokiak biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta.

Maiatzean Irunen 5.001 langabetu zeuden, apirilean baino % 2,5 gutxiago. Lanbidek emandako datuen arabera gaur egungo gure hiriko langabezia-tasa %16koa da, duela urtebetekoa baino % 1,6 handiagoa. Beraz, kopuru absolutuetan iazko maiatzean baino 451 langabetu gehiago daude Irunen.

Bidasoa Bizirik-ek, urte arteko datuen argitan, langabezia Irunen Euskadiko Autonomia

Erkidegoan baino gutxiago igo dela nabarmendu du; hots, aldea % 3,4koa izan da.

Eskualdearen garapenerako sozietate honek azpimarratu du, halaber, 25 urtetik beherakoen artean lanik gabe daudenen portzentaia % 8,2 txikiagotu dela apiriletik maiatzera bitartean.

Sektoreka, zerbitzuenak sortu du enplegu gehien, %2,8 langabetu gutxiago baitaude orain.



Mendibil Merkataritza Parkea www.fotollor.net
Tel: 943 63 61 06

(web gunetik ere)
 (también desde la web)

Zure oroitzapen onenen albuma instantean
 (Jaunartzeak, bataioak, ezkontzak, bidaiak, oporrak...)



Euskarri eta tamaina guztietako errebelatu digitala instantean

Revelado digital de todos los soportes y tamaños al momento

Album digital al momento de tus mejores recuerdos

(Comuniones, bodas, bautizos, viajes, vacaciones...)

Emozio motibagarriak, bizitzan zoriontsu sentitzeko beharrezkoak

Aurreko artikuluaurren jarraipena da honakoa.

Poza eta alaitasuna bezalako emozio motibagarriak bizitzan zoriontsu sentitzeko guztiz garrantzizkoak direla azpimarratzen da testuan.

Emozio desatseginekin bizitzen ikasi behar dugu, ahal dugun neurrian hauek erregulatzen ikasi eta gure bizian integratu. Baina emozio atseginak (poza, interesa, esperantza) bidera ditzakegu, egunero poztu edo ALAITZEN gaituen zerbait egin.

Helburu bat lortzen dugunean oso alai sentitzen gara, baina are ederragoa da bidean emandako pausoez gozatzeko ahalmena badugu. Maiz esaten den bezalaxe, geuk egin ahala sortzen da bidea. Egunero



hamaika gauzatxo txiki badaude gozatzeko, haiez ohartzea zoriontasunaren bidean egotea da:

Izozki bat azkar eta korrika, oharkabean hartzen badugu, pozgarria da; baina... izozkia poliki, lasai eta ahoa bete gozo dastatzen badugu, zoriontsu senti gaitzake gure pozean.

Medikuarenean gure txandaren zain luze itxoin behar badugu, liburua hartu eta uneaz gozaten badugu (denbora berdin eman beharko dugu, pozik edo haserre), gure txanda iritsi arte zoriontsu senti gaitzake, gaur guretzako momen-

tu bat izan dugula sentituz.

Egunean zehar benetan sentitu eta gozatzeko sentimendua ipintzen badugu, zoriontasun bidean egon gaitzake. Bizitzan positibo bizitzea emozio desatseginekin bideratuz emozio atseginekin konektatzea da. Beraz, lagunok, pentsatu: egon minutu bat lasai eta programatu gaur zer egingo duzun zure burua zaintzeko eta zure ingurukoekin zure poztasuna konpartitzeko. Zoriontsu bizi!!!!!!!!!!!!

*Kuttun aholkularitza
psikopedagogikoa.*

MAPI URRESTI ORTIZ

Hitz hauek ekainaren 8an Amaia Kultur Zentroan izan zen hitzaldiaren kariatara idatziak dira. Gorka Espiauk zuzendutako *Pluja seca* (*Euri lehorra*) dokumentala izan genuen hizpide.

Pluja seca edo Euri lehorra

Gorka Espiau Elkarki-ko kidea izan zen, eta dokumentala gauzatu aurretik Ibarretxeren gobernuaren aholkularitzan bakerako politikan jardun zuen. Hitzaldira joan ez bazinen, hona nik neronek Gorka Espiauren *Pluja seca: Mediadors internacionals al*

Pais Basc dokumentalaren harian jasotakoa, baita Gorkak herri honen bake eta normalizazio egoeraz daukan iritzia ere:

Zer da dokumentala, *Pluja Seca*?

Baleuko etxetik etorri zen ideia lantzeko eskaintza. Gidoia idatzi eta TV3ra bidali nuen. Monica Terribasek harrera ona egin zion proiektuari. Lana urte batean osatu genuen. Normalean honen antzeko dokumentalak Euskal Herriko ikuspuntutik egin izan dira, gure kontsumorako. Kataluniako –eta katalanen– ikuspegia baliatu nahi nuen. Askatasunez egin dut. Iritziak jaso ditut eurengandik, eta horrek aberastu du lana. Kataluniak badu lotura Euskal Herriarekin, baina iraganeko kontua balitz bezala. Aldiz, nik harremana nahi dut etorkizunera begira. Katalanek maitasun handiz hartzen dute bakerako gure nahia eta beharra, baina guk ez diogu kasu bera egiten.

Zer harrera izan du orain arte?

Orain arte, *Pluja secari* buruzko iritzi positiboak eduki ditugu, ez dugu inolako iritzi ezkorrik irakurri edo entzun. Baina horrek ez du esan nahi ez daukanik, baizik eta orain arte dokumentala gustuko ez dutenek nahiago izan dutela isildu. Eta horrek asko esan nahi du. Horrek esan nahi du batzuek dokumentalaren atzean dagoen eztabaidari ez diotela heldu nahi, nahiago dutela dokumentala baztertu,



esparru marjinalera zokoratu, zeren eta dauden eztabaidak konfrontatzen badituzte deseroso senti baitaitezke. Orduan, jaso duguna positiboa izan da, baina, errealista izanik, ez dugu jaso gizartean dauden iritzi guztiak. Halaber, hainbat politikarik ikusi

dute, eta iritzi baikorrak jaso ditugu; baina PP eta PSOeko kideei ez diegu ezer entzun.

Ipar Irlandan euri lehorra lurrintzen da azalean sartu aurretik; Euskal Herrian aldiz, ziri-miriak blaitu egiten du gorputza. Horra zure dokumentala ilustratzen duen metafora.

Bai. Metafora balio izan zait Hegoafrika, Irlanda eta Euskal Herriko lurralde ezberdinetako gatazkak lotzeko. Noski, metafora guztiak bezala, metafora honek ez dauka gaitasunik errealitatea guztiz irudikatzeko. Hala ere, hiru lurraldeen arteko loturak azaltzea lortu dugu, baita ezberdintasunak ere. Metafora ez da hitz joko bat. Irlandak eta Euskal Herriak beren artean ez dutela batere zerikusirik entzuteaz aspertuta nago. Argi dago egoera ezberdinak direla; gure testuinguruak ezberdinak dira, baina kontua da egoera bietatik ikastea. Irlanda oso ezberdina da gurekiko eta gu ere haiekiko, baina azken hamar urte hauetan gure ezagutza handiago da, harremanak ere sakonagoak direlako. Egoera ezberdinak aztertuz eta bakoitzetik ikaspen kritikoa eginez garatu da giza historia.

P.S.: *Pluja seca* ez baduzu ikusi, ez da berant. Merezi du-eta.

MIKEL ASURMENDI

Egilea aurkilea izaki

Grisa, berdea eta gorria ziren koadernoak. Koaderno txiki haien amalgamatik *Hiru koaderno txiki* erditu du Fermin Erbitik. Txikia baina bizia. Gezi zorrotzenak gorritik bilduko ote zituen nago. Horiek azken orrialdeetan ageri dira, (In)komunikazioari behako zoliak biltzen dituen atala, kazetarioi jaurtikitako geziak.

Abiatu baino, paradisutik abian da Fermin Erbiti. Fermin Cupido antzo imajinatu dut, paradisuetako liburutegietan arakatzaille. Mitologiako kontuetatik gaurko-etara bide egin du. Aspaldiko eta gaurko idazle eta pentsalarien esaldien hariekin osatu du sarea: armiamaren gisara, harian-harian eta ezari-ezarian.

Txatalez txatal hariak irun ditu, besteengandik bildutako eleak ehun ditu: txatalen josketak eleen berezko zentzuari are izari handiagoa eman dio. Hainbat pasarte ifrentzuz paratu ditu egileak, ahalegin zinez eskergarria. Aurkilea da funtsean liburuaren egilea. Egunsentian errainuak nola, hala bilatu ditu aurkile honek erranairuak. Zoriontasuna xerkatu du apalategietatik apalategietara, eta osasuna eta oroimena kontrakarrean aurkitu: “Biak funtsekoak dira, baina modu kontrajarrian”. Osasun ona bezain garrantzitsua omen da oroimen txarrekoa izatea, gaztigatu digu halaber. Eskergarria berriz ere.

Zoriontasuna helezina izaki, hizkuntzaz gozatu gero, tarteka-marteka ukitu daitekeela ohartarazi digu Erbitik, eta ohartarazi ere arauak oztopatzen digutela hitzekin gozatzea. Eta, bis-



Liburua: *Hiru koaderno txiki*
 Egilea: Fermin Erbiti
 Argitaletxea: Pamiela
 (Juan Zelaia saria, 2010)

tan da arazoa ez dela hizkuntzarena, hizkuntza darabilgunona baizik.

Arau egileak, besteak beste, politikariak direla eta Fermin Cupidoak ez du kupidarik (barkatu hitz joko erraza) haiekin. Politikariek ez baitute irakurtzen. Agian, prestuagoak balira gezurrak hobeto sakatzen ikasiko lukete. Tira, nire ondorioa da.

Beste hari asko ehun ditu aurkileak. Bila ezazu. Zoaz eta bila!

Kapuscinkiren aipua aurkitu duzu bidean, adibidez: “Kazetari onaren ezaugarri nagusiak umiltasuna eta enpatia dira”. Kazetari izan gabe, gomendio paregabea

edonorentzat. Kazetaritza berriaren xedea ofizioa bezain zaharra dela gogoratu digu aurkileak (in)komunikazioari eskainitako txatalean. Kazetarioi agintarien gezurrak salatzea ahaztu zaigu, ordea. Teknologia berriek erredakzioan –eta etxean– gatibatu –kaletik urrun gatibu bihurtu– gaituzte. Martxa honetan Cupido berak ez gaitu libratuko. Tira, denak ez dira negar anpulak. Ez gaitzala laborriak guztiz jo. Gure Cupidok badaki apalategiko hautsa ondo astintzen-eta. Eta hala astindu ere *Cuaderno amari-lloren* –izenak izanari ederki dagokio antza– egilea, Salvador Paniker idazlea.

Barkatu ironia. Liburutik jaso dut.

MIKEL ASURMENDI

j a i e t a k o e g i t a r a u a

Ekainak 23

11:00 Arizmendi
Almirantearen plazan, I.
MENDIBIL PATATA-TORTILLA
LEHIAKETA.

11:30 Behobiko futbol
zelaian, HAURRENTZAKO
JOSTAGARRIAK.

19:00 San Juan Arria pla-
zan, SAN JUAN ARBOLA
jartzea, eta Txistularien Udal
Bandaren emanaldia.

19:30 Alberto Anguera pla-
zatic irtenda, Buruhandiak
eta Erraldoiak, Txorimaloak
Soinu Taldeak eta Goizut
Gaitariak lagunduta.

20:00 Jaietako agur ofiziala,
Udaletxean.

21:00 San Juan Arria pla-
zan, AURRESKUA, suaren
inguruan, Kemen Dantza
Taldearen eskutik.

21:45 ALKATE jaunak sua
piztuko du.

22:30 Urdanibia plazan,
MUSIKA. DESERTU HOK
talde irundarraren emanal-
dia. Ondoren, ESNE
BELTZA. Atsedendian:
ZEZENSUZKOA.

Ekainak 24



11:30 Katea Auzoko pilota-
lekuan, HAURRENTZAKO
JOSTAGARRIAK.

12:00 IRUN HIRIA-SAN
MARTZIAL ERAKUSLEHIO
LEHIAKETAKO sari-banake-
ta.

12:30etik aurrera, Genaro
Etxandia plazatic Ficobara
joateko TRENAREN IRTEE-
RA, adinekoen omenezko
bazkarira joateko.

14:00 FICOBAn, ADINEKO-
EN OMENEZKO BAZKARIA.
Ondoren, dantzaldia,
18:00ak arte.

14:00etatik 18:00etara,
Santiagotarren ontzira-
lekuan, STAND UP PADDLE
SURF doako erakustaldia
eta lehen aldiz ibiltzea.

16:30etik 21:30era,
Urdanibia plazan, GAZTE-
FESTA. Askotariko tailerrak,

joko kooperatiboak, erakus-
taldiak, graffitiak, Raga
Taldea, Funky, Sabel-dantza,
eta abar.

18:30 Urantzu pilotalekuan,
ESKU-PILOTAKO AFIZIO-
NATUEN KURPIL KIROLOK
TXAPELKETA. Sarera doan.

20:00 Zabaltza plazan,
ANTZERKIA. HORTZMUGA
taldea.

20:00 Irungo Argazkigintza
Elkartearen lokalean (Izaga
kalea, 7-behea) SAN MAR-
TZIALEKO ARGAZKI TXA-
PELKETA HERRIKOIKO
sariak banatuko dira.

20:00etatik 22:00etara
Ficobako kanpoko Pabiloian
DISKOFESTA. Sarrera doan.

23:00etatik 02:00etara
Ficoban DISKOFESTA.
Sarrera doan

Ekainak 25

8:00etatik 22:00etara, San
Martzial mendian, IRRATIZA-
LEEN ERAKUSTALDIA.

9:30 Urdanibian, HERRI
GOSARIA; ondoren KOA-
DRILLEN OLINPIADA.

10:00 Artalekun, ZIKLO
INDOR MARATOIA.

10:00 PIRAGUISMOKO ETA ARRAUNKETAKO KONTZENTRAZIOA, Santiagotarretatik irtenda.

10:30 Txanaleta plazan, LORATEGI TRENAREN ZIRKUITU ERAMANGARRIA.

11:30 Antzaran plazan HAURRENTZAKO JOSTAGARRIAK.

13:15 Urdanibia plazatik aterako dira KOADRILLAK ETA FANFARREAK Ficobara. Ondoren, herri bazkaria.

16:00 RAMUNTXO BERRI udal trinketea, SAN MARTZIAL TRINKET TXAPELKETA.

16:30 Zabaltza plazan, BINAKAKO PUZZLE TXAPELKETA.

18:00 Urantzu pilotalekuan, HAITEROFILIAKO NAZIOARTEKO SAN MARTZIAL TXAPELKETA.

18:00 Urdanibia plazatik irtenda, SAN MARTZIALEKO IGOERA ATHLETIKOA.

18:00 Artalekun, TOXIC DANTZA ESKOLAREN erakustaldia eta ARTE MARTZIALAK Shorei-Kan Klubarekin. Sarrera doan.

22:00 Junkal plazaxoan, DANTZALDIA, KEMEN DANTZA TALDEAREN eskutik.

22:30 Urdanibia plazan,

MUSIKA. BOOGIE VAN taldearen emanaldia; ondoren, TXARRENA.

22:30 MUSIKA GIROA. BATEK BATUKADA perkusio-taldea, Zabaltza plazan eta Karrika Nagusian.

24:00 MUSIKA GIROA. LES ENFANTS taldea, Zabaltza plazan eta Karrika Nagusian.

Ekainak 26

08:30 Urdanibia plazan, BTT TXIRRINDULARI PROBA, AIAKO HARRIKO ZEHARKALDIA.

9:00 Erromes plazan HAURREN MARRAZKI ETA PINTURA LEHIAKETA.

9:00 Ugalde-Ventas futbol-zelaian, FUTBOL ESKOLEN NAZIOARTEKO TORNEOA

10:00 Urdanibia plazan, PILPIL ERAKO BAKAILAO TXAPELKETA.

10:00 Artian ALBERTO GORRIZ FUTBO L-7 TXAPELKETAKO FINALAK.

12:00 Zabaltzan: Tango dantzaldia. Nahi duenak parte har dezake.

13:00 Junkal plazaxoan, TXISTULARIEN ALARDEA.

17:00 Junkal plazaxoan, HAURREN MARRAZKI ETA

PINTURA LEHIAKETAKO JAIALDIA eta SARI-BANAKETA.

17:00 Antzaran plazan, SAN VICENTE DE PAULEKO MAJORETTEak

19:00 Amaia KZn, Jacinto Guerreroren "Los Gavilanes" ZARZUELA.

22:00 Urdanibian MUSIKA, THE DISPOSITIVES bertako taldearen eskutik; ondoren, LILITH taldea.

Ekainak 27

10:00 "IRUN HIRIA" BINAKAKO IBILALDI NEURTUA Luis Mariano Pentsiodunaren Etxetik irtengo da.

11:30 Dunboa eskolan (Larreandui), HAURRENTZAKO JOSTAGARRIAK.

18:00 Urdanibian, TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON JUNIOR pailazoak.

20:00 Zabaltzan, KALE ANTZERKIA, MUMUSIC CIRCUS-en eskutik.

Ekainak 28

19:00 Alberto Anguera plazatik BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK.

20:00 San Juan plazan, KALE ANTZERKIA. TRAPU

ZAHARRA taldea.

22:30 Urdanibia plazan,
MUSIKA. LOLAS CLUB tal-
deak joko du. Ondoren, EL
PESCAO.

23:30 Karrika Nagusia eta
inguruetan, BATUKADA.
ZOZONGO taldea.

24:00 Karrika Nagusia eta
inguruetan, BATUKADA.
ZONBIN BLAI taldea.

24:00 Dunboan,
CAMP BERBENA.

00:15 Santiagoko
Bidegorritik, SU ARTIFIZIA-
LAK.

Ekainak 29

8:00 Hainbat auzotan,
DIANA.

9:30 SAN PEDRO SARIA –
IRUNGO KLASIKOA.

10:30 San Juan plazatik
Junkaleko Andre Mariaren
Elizara joango da UDAL-
BATZA jarraigoan. Ondoren,
Meza Nagusia.

Parrokiko Koruak, beste
abesbatza batzuetako kide-
ek lagunduta, "TU ES
PETRUS" abestuko du.

12:00 Junkal plazatzon,
AURRESKUA dantzatuko du
UDALBATZAK.

12:30 Udaletxeko arkupee-
tan, SAN PEDRO EGUNE-

KO KONTZERTUA.

16:30 Meakan, ERROMERIA
ETA TOKA TXAPELKETA.

21:00 Txanaleta plazatik,
KALEJIRA.

22:00 LASTARGIEN EKIN-
TZAREN OROITZAPEN EKI-
TALDIA. Gipuzkoa hiribide-
ko Anbulatoriotik irtengo
da.

22:00 LOS PEROLAS eta
LOS TRANQUILOS fanfa-
rreen irteera.

Ekainak 30

4:00 ALBORADA, ohiko
tokietan.

6:00 * VILLARROBLEDOKO
DIANA.

* SAN MARTZIALEKO
ALARDEaren hasiera.

12:00 Martzial mendian,
1522ko Boto Sekularra bete-
ko du Udalbatzak.

Ondoren, Meza eta errome-
ria

22:30 Urdanibia plazan,
DISKOFESTA.

23:00 Zabaltza plazan,
MARIACHI INTERNACIO-
NAL DE MEXICO taldearen
emanaldia.

Uztailak 1

8:00 DIANA

8:00 Urdanibian ABERE
LEHIAKETA.

10:00etatik aurrera,
Urdanibian, TRIKITILARIAK,
BERTSOLARIAK, HERRI
KIROLA. 13:00 ABERE
LEHIAKETAKO SARI
banaketa.

18:00 Urantzu pilotalekuan,
PROFESIONALEN PILOTA
PARTIDAK.

18:00 Urdanibian, BIDASO-
AKO DANTZA ASKATUKO
TXAPELKETA. Jarraian
ERROMERIA.

20:00etatik 22:00etara
Ficoban DISKOFESTA.
Sarrera doan.

22:00 JOSTALLU, ELIZATXO
eta GAUERDI fanfarreen
irtenaldia.

22:30 Santiagoko
Bidegorritik, SU ARTIFIZIA-
LAK.

23:00etatik 02:00ak arte
Ficoban, DISKOFESTA.

23:30 Zabaltza plazan:
BAKARRIZKETA JAIALDIA.
DANI FONTECHA eta
CORRALES jaunaren ema-
naldia. Zeremonilaria: Mario
SIMANCAS.

24:00 Txanaleta plazatik,
JAIEN AMAIERAKO KALEJI-
RA.

* Udalak antolatzen ez dituen
ekintzak.

Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- **MAKETA LEHIAKETA.** Irungo Udalak abian jarri du MUSIKIRUN I Maketa Lehiaketa Phantom Studiosen laguntzarekin. Baldintzak: Nahi duten talde edo bakarlariek parte har dezakete baldin eta taldekideen batez bestekoa 30 baino gehiagokoa ez bada. Sariak: 1go saria, Mini LP bat grabatzea. Epea: Ekainak 20.



- **ERAKUTSI ZURE LOKALA TELEBISTAN ETB 3ko LOKALE-ROAK** saioari esker. Bidal itzazue argazkiak edo bideoa: lokaleroak@eitb.com

Lana



- **UDA HONETAN LAN EGIN NAHI DUZU?** Hementxe lan eskaintzak eta aholkuak www.irun.org/igazte

Ikastaroak



- **EKAINETIK AURRERA LANBIDEK** 446 ikastaro antolatuko ditu.

Udako ordutegia

GAZTE INFORMAZIOAREN UDAKO ORDUTEGIA: ekainaren 27tik irailaren 30era arte, goizeko 10:00etatik 14:00etara

Uda dibertigarria!



Udal Gaztelekuak hainbat jarduera proposatzen dizkizue 14-18 urte bitarteko gazteei.

-Aqualand-era irteera, paddle-surfa, Arditurri. Bizikletaz igerilekura...

www.irun.org/gazteleku

Gazteentzat disko festak

DISKO FESTAK IRUNGO JAIE-TAN. Apunta itzazu data hauek: ekainaren 24an eta uztailaren 1ean, Ficoban. Ekainaren 30ean, Zabaltza plazan

Iruzurrak interneten!!!

- Facebook-eko gako gisa erabiltzen duten bi kode gaizto agertu dira
- Lan eskaintza falt-suak. Gero eta finantza "txiringito" gehiago ari da azaltzen lan falt-suak eskainiz, dirua zuritzearren, kontu korrontek lortzeko helburuarekin.

Parkour Euskadi

Entrenamendurak, mugimenduak eta beste "traceur"ekin geratzeko foroa!

www.umparkour.com





SURF TIME

Mario Azurzak aurkeztuta

Uztailean eta abuztuan, asteazkenero, 22:00etan, surfaren inguruko saiorik freskoena.

Errepikapenak: Astelehenetan, ostiraletan eta igandetan, 23:00etan.

Olatu gainean



Asteartero 21:00etan, traineru sasoiaren inguruko berri guztiak.

Errepikapenak: Asteazkenetan 15:30ean, ostegunetan 21:00etan eta ostiraletan 21.00etan



Alarde publikoko kantinerak



Danberrada
Elixabete Vega Apeztegia



Banda
Laida Oronoz Vendrell



Zaldieria
Nerea Izquierdo Izaguirre



Landetxa
Maialen Gonzalez Vega



Bidasoa
Irati Bidaurre Rodriguez



Olaberria
Ainhoa Bergara Sanchez



Ama Xantalen
Jaione Zubillaga Baigorri



Anaka
Maria Amunarriz Muñoz



Lapitze
Izaskun Espinal Ramos



Artilleria
Natalia Taberna Solbes



Biltegi eta bulegoak:
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.